



USURBILEN SEIHEUN NORBANAKOK ETA HEMEZORTZI ENTITATEK EMAN DUTE IZENA EUSKARALDIAN

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era burutuko da eta izen-ematea zabalik da oraindik



Usurbilgo talde eragileak asteak daramatza prestaketa lanetan.

"Euskaraldia ariketa kolektibo bat da"

Euskaraldia euskararen erabilera aktibatze mugimendu soziala da. Maiatzaren 15etik 25era Euskal Herrian burutuko den kanpainan, "maila pertsonalean edota kolektiboan parte hartu ahal izango da".

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

Euskaraldia hortaz, ez da epe jakin batera mugatzen den dinamika, "euskararen erabilera aktibatze mugimendua elikatu eta gizartearen errota nahi duen ekimena baizik".

Euskal Herri osoan egingo den ekimen zabal honen bitartez, "hizkuntza-ohituren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak eman nahi

dira". Eta bide batez, entitatei ere euskaraz bizitzeko aukerak eskaini. Beste era batean esanda, "Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozial batean, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du, euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sortuz".

Euskaraldia ondoko helburuekin sortu zen

- Hiztunen hizkuntza ohituren eragitea, euskarazko hizkuntza praktikak hedatzeko eta denboran zehar errotzeko.
- Norberaren hizkuntza portaera eta ohituren inguruan gogoeta eragin eta aldaketan lagungarri izatea.

- Entitateek euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten neurriak sustatzea.
- Gizarte aktibazioa, ariketa kolektibo baten bidez.
- Herriz herriko euskaltzaileen artikulazioa bultzatzea.
- Euskararen aldeko eragileak ekimen bateratu baten bueltan antolatzea.
- Euskararen erabilera aktibatze mugimendua elikatzea.

"EUSKARALDIK TOKIAN TOKIKO EUSKALGINTZA AKTIBATZEA ETA ELKARLANEAN ARITZEA AHALBIDETZEN DU"

Euskaraldia, kronologia

2018

Lehen Euskaraldia 2018an gauzatu zen eta antolatzaileen hitzetan, "Euskal Herri guztiko ehunka herrietako milaka parte hartzaileekin".

2020

Bigarren 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra burutu zen. "Covid-19aren pandemiak baldintzatutako edizioa izan bazen ere, ehunka herri eta milaka entitate zein herritarrek hartu zuten parte ariketan. Edizio honetan sortu ziren lehenengo ariguneak", Euskaraldiako sustatzaileek adiztera eman dutenez.

2022

Hirugarrena 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin zen, "berri ere, Euskal Herri guztiko milaka parte hartzaileekin".

2025


Aurreko hiru edizioetan ez bezala, aurtengoa udaberrian egingo da, maiatzaren 15etik 25era.

Elkarlanaren emaitza

Euskaraldiaren koordinazioa Euskal Herriko erakunde publikoen eta Taupa Euskaltzaileen Topagunearen arteko elkarlanean gauzatzen da.

Tauparen kudeaketapean, Euskaraldiaren koordinazio mahaian Hego zein Ipar Euskal Herriko instituzioak daude: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Euskarabidea eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Elkargoa.

Koordinazio mahaiaz gain, "euskalgintzako gainerako eragile, herrietako batzorde, boluntario eta entitaterik gabe ezinezkoa litzateke Euskaraldia Euskal Herriko txoko eta bazter ezberdinetan gauzatzea".



Ahobizi ala Belarriprest rola aukeratzeko, web orrialde honetan eman daiteke izena: izenematea.euskaraldia.eus

"Egin zaitez Ahobizi edo Belarriprest"

Euskaraldiak gure hizkuntzaren erabilera areagotzea eta hizkuntza-ohiturak aldatzea du helburu. "Aukeratu zure rola eta batu euskararen aldeko mugimendura". Ahobizi eta Belarriprest izateko gako nagusiak topatu ditugu euskaraldia.eus web orrialdean.

"Lehen hitza beti, euskaraz egin"

Ezagutzen ez duzun horri galdera bat egin nahi diozunean, edo denda edo taberna batera zoazenean, zein hizkuntza erabiltzen duzu lehen eskaera egiteko? Pentsatu gabe egiten dugunean, uste baino sarriago, erdarara jotzen dugu. Bada, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura hartuta sorpresa on asko jasoko ditugu eta euskarari bide asko zabalduko dizkiogu, ziur.

"Erdaraz erantzuten digutenean ere, eutsi euskarari"

Euskara ulertzen duen horrekin, zergatik ez euskaraz hitz egin? Berak erdaraz erantzun arren, elkar ulertzen badugu, jarrai dezagun euskaraz hitz egiten (elkarrizketa elebidunak –batek euskaraz eta besteak erdaraz– eduki, alegia).

Bide batez, azaldu euskaraz ulertzen duen orori, Euskaraldiak irauten duen 11 egun horietan, behintzat, zuk euskaraz egingo diozula.

"Eta zuk euskaraz egin ala ez, eskatu beti zuri euskaraz egin diezazuten"

Azken batean, euskara ulertzen duten guztiokin euskaraz egitea da Euskaraldiak proposatzen diguna. Hizkuntza por-tzen diguna.

**"HELBURUA
EUSKARA
GEHIAGO,
GEHIAGOTAN
ETA JENDE
GEHIAGOREKIN
ERABILTZEA DA"**

taera hauek jendartean ohiko bihurtzea da ariketarekin

lortu nahi dena. Helburua euskara gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin erabiltzea da.

Nola egin ariketak proposatzen duena?

- Ariketan parte hartzeko, izena eman behar da (euskaraldia.eus web orrian egin dezakezu).
- 16 urtetik gora edukitzea eta euskaraz ulertzea dira izena emateko baldintza bakarrak.
- Izena ematean, bakoitzak aukeratuko du zein den hartu eta bete nahi duen rola.
- Maiatzaren 15etik aurrera, "guztiok batera egingo dugu ariketa, Ahobizi edo Belarriprest garen adierazten duen txapa soinean dugula".

"Jokaera da garrantzitsuen, ez gaitasuna"

Rola edozein izanda ere, txapak mezu argia helarazten dio aurrean dugunari: nirekin egizu euskaraz, lasai. "Gogoratu rola aukeratzean, gakoa jokaeran dagoela, ez gaitasunean; hau da, garrantzitsuen ez da 'zenbat' euskara dakidan, baizik eta dakidan euskara hori nola erabiliko dudana; zenbat euskara, zenbatekin eta zenbatetan egingo dudana".

Ahobizi

Euskaraz ulertzen duten guztiokin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.



Belarriprest

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta no-rekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiokin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.





San Telmo museoa aurkeztu zuten entitateek izena emateko kanpaina.

Entitate gisa parte hartzeko aukera dago

Norbanakoak Ahobizi edo Belarriprest gisa parte hartu dezakegu Euskaraldian. Zuen entitateak euskararen erabileran urratsak eman nahi baditu, Euskaraldiak aukera ezin hobia eskaintzen dizue euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko.

Euskaraldia euskararen erabilera areagotzeko ariketa soziala da, eta Euskaraldiaren laugarren edizioan ere entitateek bertan parte hartzeko aukera izango duzue.

Entitate gisa, zer egin behar da Euskaraldian parte hartzeko?

Zure entitateak Euskaraldian parte hartzea erabakitzen badu, euskaraldia.eus/entitateak/ web helbidera jo eta **Hartu parte!** botoian klikatu. Galde-tegi bat agertuko zaizu, bete, eta horrekin batera, hiru konpromiso hauek hartuko dituzue:

- Belarriprest eta Ahobizi rolen berri eman eta kideak rol horiek hartzera gonbidatu.
- Euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eta baliabideak kideen eskura jarri. Material hori Euskaraldiak jarriko du zure entitatearen

esku. "Eskakizun horiek betetzeko materiala eta bitartekoak izango dituzue eskura euskaraldia.eus web orrialdean, entitateen intranetean", Euskaraldiaren antolatzaileek aditzera eman dutenez.

- Ariketan parte hartzen ari zaretela ikusgarri egin: espazioak apaindu, txapak banatu, eta barne zein kanpo komunikazioetan Euskaraldia zabaldu.

Aurrepaso gehiago emateko aukera

Zure entitateak parte hartzeko izena eman badu, "aukera du lanketa sakonagoa egiteko eta entitatean euskara sustatzeko neurri sendoagoak hartzeko". Euskaraldiak hiru lanketa hauek proposatzen ditu:

- Ariguneak sortu: zure entitatean euskaraz lasai aritzeko guneak sortu.
- Komunikazioak euskaraz egin: bilerak, barne eta kanpo komunikazioak euskaraz garatu.
- Euskararen presentzia indartzeko beste neurri batzuk hartu (hizkuntza harrera planak, barne politikak, eta abar).

**"ENTITATEEK
AUKERA DUTE
LANKETA
SAKONAGOA
EGITEKO ETA
NEURRI
SENDOAGOAK
HARTZEKO"**

Zer da entitate bat? Lantokia, kirol elkarte edota saltokia

Euskaraldia entitateetan nola hedatu eta landu daitekeen argitzeko agerraldia egin zuten otsailean, Donostiako San Telmon. Gogorarazi zuten, datorren maiatzaren 15etik 25era egingo den ariketa sozialean entitateok "zeresana eta zeregina" izango dute, Ahobizi eta Belarriprest guztiekin batera. Denei parte hartzeko deia egin zieten Euskaraldiaren bultzatzaileek. Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan aritzea xede duen ekimen honetan entitateak zeintzuk izan daitezkeen gogorarazi zuten. "Entitateak aipatzen direnean, kontzeptuak askotariko eremuak barnebiltzen ditu, izan ere, lantokiak badira entitate, baina baita kirol edo kultur elkarteak, eta dendak edo tabernak ere".

Inplikazio maila, hautazkoa

Entitateek Euskaraldian parte hartzeko inplikazio maila hautatu ahal izango dute laugarren edizio honetan. "Oinarriko egitekoak aurrera eramateaz gain, euskararen erabileran bestelako urratsak emateko aukera ere izango dute", Euskaraldiaren sustatzaileek zehaztu dutenez.



ZirHika mugimendua hitanoa biziberritzeko sortu zen. Euskaraldia Hika ekimenaren sustatzaileetako bat izan da, Taupa Euskaltzaleon Mugimenduarekin batera.

"Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu"

ZirHika mugimenduak herriz herri hitanoa bultzatzea du helburu; batez ere, noka. Euskal Herriko I. Hika Topaketatik sortu zen eta hainbat tokitako hika eragileek osatzen dute. Orain, Euskaraldiarekin bat eginez, hika ikusgarri egitea du helburu.

Euskaraldian parte hartuko dutenek, Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratuko dute. Horrez gain, Hika ekimenean parte hartu nahi badute, H hizkia daraman eranskailua jarriko diote txapari.

Nola parte hartu Euskaraldia Hikan?

1. Euskaraldia Hikan izena eman ahal izateko, tokian tokiko batzordeak Hika ekimenean parte hartzea erabaki behar du. Usurbilgo batzordeak bat egin du ekimenarekin.
2. Zure herriko batzordean Euskaraldia Hika ekimenean parte hartzea erabaki baldin badute, Euskaraldian izena emateko garaian, Euskaraldia Hikan ere parte hartu nahi duzun galdetuko zaizu (bai/

ez erantzuteko aukerarekin). Markatu erantzuna eta listo.

3. Txapajasotzera zoazenean, "H" pegatina emango dizute, Ahobizi edo Belarriprest txapan itsatsi dezazun.
4. H-aren esanahia honakoa da: "Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu".
5. Belarriprest ala Ahobizi? Hori ez da aldatzen. Norberak erabakiko du bata ala bestea izan nahi duen.
6. Hika jakin beharra al dago H-a ipintzeko? Ez, hitanoa ikasi/entzun nahi duenak ere ipini dezake pegatina.

Hikaldia, edizioz edizio

2020

Bergaran eta Oiartzunen antolatu zen Hikaldia lehenbizikoz, 2020ko Euskaraldian.

2022

2022ko Euskaraldian, herri gehiago batu ziren, batez ere Gipuzkoako eskualderik euskaldunenetakoa: Urola Kosta, Goierri, Debagoiena...

2025

Laugarren ariketaldi honetan 83 izango dira ekimenean parte hartuko dutenak.

"EUSKARALDIAN IZENA EMATEKO GARAIAN, EUSKARALDIA HIKAN ERE PARTE HARTU NAHI DUZUN GALDETUKO ZAIZU"

Euskaraldia Hikan parte hartzen duten herriak

Zerrenda honetan ikus ditzaitezue alfabetikoki euskaraldia hikan parte hartzen duten herriak:

Abadiño, Abaltzisketa, Aduna, Aia, Aizarnazabal, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Araitza, Arantza, Areatza, Arrasate, Asteasu, Astigarraga, Ataun, Aulesti, Azkoitia, Azpeitia, Baliarrain, Beasain, Belauntza, Bera, Berastegi, Bergara, Berrobi, Betelu, Bidania-Goiatz, Elduain, Elgeta, Ermua, Errenteria, Eskoriatza, Etxalar, Etxebarriko Udala (Lea-Artibai), Gaztelu, Getaria, Goizueta, Hernani, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Igantzi, Ikaztegieta, Irun, Iruñea, Irura, Itsaso, Larrabetzu, Larraul, Larraun, Leaburu-Txarama, Leizta, Lekunberri, Lesaka, Lizartza, Mallabia, Markina-Xemein, Mungia, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Orendain, Oresa, Orio, Ormaiztegui, Ortuella, Segura, Sorluze, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Zaldibia, Zarautz, Zestoa, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zornotza, Zumaia, Zumarraga.



Euskaraldiaren Hamaikako hainbat kide herri batzordeko ordezkarekin batera, apirilaren 12ko ekitaldian.

Hamaikakoa ere, Euskaraldirako prest

Usurbilek ere osatu du maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldirako Hamaikakoa. Igaro berri ditugun jaiegunen aurretik aurkeztu zuten jendaurrean. Haiekin bat egin eta hamaika eguneko ariketa kolektiboan parte hartzeko deia egin zuten.

Mertxe, Gari, Valeria, Jon, Jose Ramon, Cati, Ibon, Estitxu, Alizia, Antxon eta Modu. Herrikide guztiok osatu dute, maiatzaren 15etik 25era izango dugun Euskaraldiaren Hamaikakoa. Erronka argi bat izango dute; herrikide diren heinean, gainerakooi ere geure hizkuntza ohituretan eragitea eta ariketa kolektibo horrekin bat egin eta izena ematera animatzea.

Hamaikakoa iragan apirilaren 12an aurkeztu zuten, Mikel Laboa plazan eginiko ekitaldian. "Genero, adin, esparru, auzo, bizipen linguistiko anitzeko hamaika lagun" dira, Euskaraldia Usurbilen dinamizatu eta larunbat hartako ekitaldiko deitzaile izandako herri batzordetik zehaztu moduan. "Batzordeko kideekin batera, Euskaraldiaren kola-

boratzaile aktiboak izango" direla iragarri zuten.

"Euskaraz jarraitzea hizketan"

Bateko zein besteko bi kideek hartu zuten hitza; batetik, ekitaldi hasiera kantuz giroturiko Xabier Iraolak. Maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldirako bere erronka zein izango den azaldu zuen. "Aurtengo nire helburua izango litzateke, lehen-

biziko hitza euskaraz egitea pertsona ororekin. Nahiz eta haiek jakin ez, euskaraz jarraitzea hizketan. Horrela euskarari bere indarra ematea", zehaztu zuen Iraolak.

Alboan zuen Valeria Garcia Oyarzabal. Sortzez Argentina-koa, duela lau bat urtetik Usurbilgo herrikidea. Jaiotzetik, ordea, Euskal Herriarekin lotura estua izan du. Izan ere, amona Oiartzungoa zuen. Horregatik bertako hizkuntza

"GENERO, ADIN, ESPARRU, AUZO, BIZIPEN LINGUISTIKO ANITZEKO 11 LAGUN DIRA"

"EUSKARAZ BIZITZEKO NEURRIAK ETA ESPAZIOAK SORRARAZI NAHI DIRA"

ere hurbilekoa sentitu izan du txikitatik. "Nire asmoa, betidanik euskaraz hitz egitea eta Euskal Herrian bizitzea zen". Aipatu moduan, horrek ekarri zuen Usurbilera.

Euskaraldian parte hartutakoa da lehendik belarriprest gisa baina, datorren maiatzeko laugarren edizioan urrats berri bat eman nahi du; "Aho-bizi izango naizela uste dut. Kostatzen zait hitz egitea" baina Valeriak Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritarren batzordeari eskainitako elkarrizketan nabarmendua duen moduan, "oso gustura" dago hizkuntza horretan aritu ahal izateagatik. Horregatik, "jantzi txapa! Animatu zaitez!" esanez, ekimenarekin bat egitera gonbidatu gintuen. "Zaila da, ez da hain erraza, baina ezinezkoa ere ez", ziurtatu zuen.

Euskaraldirako izena eman, informatu edota txapak zein gainerako baliabideak eskuratzeko aukera eskaini zuten ekitaldia hasi aurretik. Euskal Herrian barrena dabilen gune ibiltariak geldialdixoa egin zuen frontoi atzean. Gune horrek girotu zuen hain zuzen, Mikel Laboa plazan eginiko ekitaldia. Gainera, hasi eta amaitu, kantuan egin zuten, herriko sortzaileen eskutik.

Orohar, Euskaraldia "euskaren erabilera aktibatzeko mugimendu soziala da. Zehazki, euskara ulertzen duten hizkuntzen hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditu egitasmo honek. Horretarako ariketa kolektibo bat burutzea proposatzen da Euskal Herri osoan hamaika egunez eta egunero ko harremanetan euskara lehenetsiz", nabarmendu zuten apirilaren 12ko ekitaldian. Hala, "euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sorrarazi nahi dira ekimen honekin".

Hau guztia prestatzen dihardu Usurbilen osatua den herri batzordeak. "Iazko udazkenean elkartu ziren dozena bat euskaltzale, herriko eragileetako

kide zein norbanako, Euskaraldia herriratzeko helburuarekin eta aurrean ere hori da beraien asmoa, kaleak astinduz eta giroa sortuz".

Seiehun norbanako, hemezortzi entitate

Bi aste eskas baino ez dira falta laugarren Euskaraldia abiatzeko. Guztion hizkuntza ohituretan eragitea xede duen ariketa kolektibo hau prestatzeko urrats berri bat eman zuen herri honek apirilaren 12an Mikel Laboa plazan eginitako ekitaldiarekin. Izan ere, ekimen honekin bat egitea bultzatuko duen herritarren Hamaikakoa aurkeztu zuten.

Horrekin batera, noski, prestateta lanen nondik norakoan berri ere eman zuten. Gogoan izan, hilabeteak igaro dira entitateentzat izen-ematea ireki zutenetik. Martxoaren 15az geroztik, bestalde, norbanakoek ere, ahobizi zein belarriprest izango diren guztiek ere apuntatzeko aukera dute. Jendaurreko aipatu ekitaldia deiturikoa Euskaraldia Usurbilen dinamizatzen ari den herritarren batzordea izan zen. Bilgune horretatik aditzera eman zutenek, hitzordu hau egin zuten unerako dagoeneko hemezortzi entitateek emana zuten izena laugarren Euskaraldirako baita ia seiehun ahobizi eta belarriprestek ere.

Izena emateko deia deni

Euskaraldirako izen-emateak, ordea, zabalik jarraitzen du. Lehenbizikoa aldiz parte hartuko dutenek, nahiz aurreko edizioekin ere bat egin zutenek, denek eman behar dute izena laugarren ariketa kolektibo honetarako ere, izenematea. euskaraldia.eus atarian. Horren garrantzia azpimarratu zuten, azken hilabeteotan egiten ari diren moduan, Hamaikakoa aurkezteko ekitaldian. Izan ere, "horrek ahalbidetuko du gero Euskaraldiaren inguruko ikerketa egin ahal izatea, parte hartzaileen jarraipena egitea, txapak banatzea, eta batez



Usurbilgo sortzaileek girotu zuten Euskaraldiaren Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia.

ere, prestakuntza tresna eta aholkuak helarazi ahal izatea".

Euskal Herrian barrena herriz herri dabilen gune ibiltarian ere eman ahal izan zen izena, beharrezko argibideak jaso edota txapa nahiz Euskaraldiko gainerako baliabideak eskuratu ahal izan ziren bertan.

Ez da "kanpaina hutsa"

Ekimen honek orain arte jasotako babesari dagokionean, Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritarren batzordetik aditzera eman zutenek, izena eman duten hemezortzi entitateak "sustapen lan bikaina egiten ari dira haien kideen artean". Gonbita egin zieten aipatu herri batzordetik, "gainerako talde, elkarte, komertzio, enpresa, erakunde eta abarri haiek ere entitate moduan izena eman dezaten" eta horrekin batera, "modu erraz batean entitateetako

kideen artean, Euskaraldia sustatzeko konpromisoa hartzea bultzatu nahi da".

Gauza bera sustatu nahi dute baita norbanako gisa parte hartuko duten belarriprest eta ahobizi guztien artean. "Dakizuen bezala, belarriprest edo ahobizi rolak hartzean, geure hizkuntza ohiturei erreparatzen diegu eta, beraz, norberaren kontzientzia linguistikoa pizten dugu". Horregatik, ziotenez, Euskaraldia "ez da euskararen aldeko kanpaina hutsa; batetik, aktiboak diren euskaldunak, ahalduntzen laguntzen duelako eta bestetik, pasiboak diren euskaldunak motibatzen eta prestigiatzen dituelako".

Hika aritzeko gonbita

Euskaraldian hika erabili ahal izango da baita; Hikaldia ere bideratuko da Usurbilen. Aukera hau baliatzeko deia egin

zuten Hamaikakoaren aurkezpenean. "Usurbilek parte hartuko du Euskaraldia Hika ekimenean". Nahi duenak horretarako aukera izango du ere izena ematean. Ahobizi edo belarriprest txaparekin batera, "H daraman pegatina banatuko da pertsonak hika egitera animatuko gaituelako horrela eta hitanoaren erabilera indartuko dugulako".

IV. Euskaraldia

Maiatzak 9, ostirala

- **17:00** Denon artean Zubietako parkeko horma margetu dugu. Zatoz gurekin!
- **Antolatzaileak:** Zubietako Eskola Txikia eta Usurbilgo Euskaraldia.

Maiatzak 15, osteguna

Laugarren Euskaraldiaren hasiera:

- **18:30** Kalejira Usurbilgo buhanderietan.
- **20:00** Euskaraldiaren txupinazoa Mikel Laboa plazan.

Maiatzak 15-25

Laugarren Euskaraldia.

Izen-ematea:
euskaraldia.eus

**"DAGOENOKO
18 ENTITATEK
EMANA ZUTEN
IZENA BAITA IA
600 AHOBIZI ETA
BELARRIPREST-EK"**

**"DENEK EMAN
BEHAR DUTE IZENA
LAUGARREN
ARIKETA
KOLEKTIBO
HONETARAKO"**



Maialen Iñarrak adierazi digun moduan, "Euskaraldiak euskararen erabilera areagotzea du helburu".

"Udalak aktiboki hartzen du parte Euskaraldiko Batzordean"

MAIALEN IÑARRA EUSKARA ZINEGOTZIA

Badator Euskaraldia, eta herritarrak prestatzen ari diren bezalaxe, Udalean ere lanean ari dira ziklo berri honi indarrez eusteko. Euskaraldia sustatuz, euskararen normalizazioan ere eragin nahi du Udalak.

Euskara zinegotzia zara. Norbako eta entitateei buruz askotan hitz egin dugu, baina udaletxearen berri izan nahi dugu. Euskaraldian nola hartzen du parte Udalak?

Batetik, Usurbilgo Udalak entitate bezala eman du izena. Entitate bezala hartzen ditugu konpromisoak. Euskaraldiak proposatzen duen ariketa indibiduala da edo, behintzat, gonbidapena pertsoneri edo herritarrei egiten zaie zuzenean. Hala ere, hizkuntza ohiturak aldatzeko, testuinguru batek ere lagundu egin behar du, eta hori azkenean entitateetan, hainbat herritar, hainbat langile antolatuta

gaudenez, Udalak erantzukizun hori ere hartu egin behar zuen. Euskaraldiko ariketa modu kolektiboan antolatzea, nolabait.

Beraz, udal langileei egin diegu gonbidapena, luzatu diegu Ahobizi eta Belarriprest beraiek nahi duten rol hori

"GAZTELANIARA JOTZEKO EGON DAITEZKEEN INERTZIA HORIEK GUTXITZEA DA HELBURUA"

hartzeko aukera. Gero, langile bakoitzak erabakitzen du parte hartu edo ez, eta parte hartzekotan Ahobizi edo Belarriprest izanda parte hartu nahi duen. Denei egin nahi diegu gonbidapen hori ariketan parte hartzeko. Azkenean, ariketak euskararen erabilera

"ULERTZEN NAUTEN GUZTIEKIN SAIATZEN NAIZ EUSKARARI EUSTEN"

areagotzea bultzatzen du, eta uste dut hori Usurbilgo Udalean urte luzeetako lanaren ondorio dela, Udalaren euskarazko jardunarekin batera. Hizkuntza ohitura horietan egon daitezkeen inertziak, gaztelaniazko inertzia horiek, gutxitzea da helburua. Inertzia horiek ere badaudelako. Ahobizi eta Belarripresten hautu hori azkenean partida batean edo mahai-joko batean jokatzeko hartzen duzun rol bat bezala ulertzen dut, eta erabaki behar duzu hamaika egun horietan nola jokatu nahi duzun.

Ez diot hainbesteko garrantziarik ematen Ahobizi edo Belarriprest txapa jartzeari; uste dut inportantea dela txapa jartzea eta ariketa hori egin ahalizatea. Belarriprest baldin bazara zuri euskaraz zuzentzeko eskatzea eta Ahobizi baldin bazara ulertzen duten guztiekin ere euskaraz egitea. Bakoitzaren hautua kontuan hartu behar da. Agian momentuan, norberaren gogo eta indarraren arabera, neurtu dezakezu zertarako prest zauden eta zertarako ez. Parte hartzea iruditzen zait garrantzitsuena, eta behintzat, hizketagai jartzea euskararen erabilera bera.

Zu zeu Ahobizi izango al zara?

Ni Belarriprest izango naiz. Aukeratuko dudana rola izango da eskatzearena edo gonbidatzearena, niri euskaraz zuzentzeko. Hori bestela ere saiaterik naiz egiten: ulertzen nauten guztiekin saiatzen naiz euskarari eusten, baina konturatzen naiz testuinguruaren arabera ez dela erraza eta ariketa modu kontziente batean egin behar dela.

Gaztelaniazko kartel pila bat dauden lokal batean sartu eta horrelako testuinguru batean euskaraz aritzeko urratsa ematea batzuetan kostatzen da, bortitza sumatzen da. Kasuan kasu, batzuetan oso indartsu sentitu eta aurre egiten diozu egoerari.

Zer antolatuko du udalak edizio honetarako?

Udalak aktiboki parte hartzen du Euskaraldiko Batzordean. Bertan egin dugun hausnarke-ta izan da Euskaraldiari buruzko ekitaldi propioak sortu baino –bestela ere, Usurbilen ekitaldi pila bat antolatzen da–, iragarrita dauden horietan Euskaraldia nolabait agertaraztea. Beste eragileak ere inplikatzeko Euskaraldiko gonbidapena egiteko. Horretan gabiltza pixka bat; antolatzaile desberdinekin harremanetan jarri eta Euskaraldiari tokitxo bat egin diezaio-ten beraien ekitaldietan. Betiere, egongo da zerbait Euskaraldiko lehenengo egunean. Topa bat edo deituko du Batzordeak argazki bat ateratzeko. Uste dut garrantzitsua dela ariketa egiten jardungo dugun herritarrei aitortza bat egitea. Animatu nahi ditugu herritarrak horretara, eta eguneroko jardunean eus-kara bultzatzera.

Nola ematen dio bultzada hori Udalak?



"Udalak badu erabilera plan bat, lauzpabost urtetik behin berritzen dena".

Bide desberdinak ditugu horretarako. Euskaraldia, azkenean, hamaika egunetan gertatzen den ariketa bat da. Egia da, bi urtez behin edo erre-pikatzen da eta, orduan, hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzen da errepikapenaren bidez. Hori

modu indibidualean, baina Udala euskarazko jarduna norma-l izan dadin bermatzeko tresna handiena da. Udalak badu euskara erabilera plan bat lauzpabost urtetik behin berri-tzen duena, eta justu horrekin gabiltza, plan hori osatzen eta

berritzen. 2022an lortu zuen Udalak Bikain ziurtagiria: euskarazko erakunde publikoen goi mailako ziurtagiria. Erabileran plan hau berritzen dihardugu eta identifikatu genituen herritarrekin jarduterakoan hainbat esparrutan dauden gabeziak. Seguraski badaukagu lan bat egiteko, hizkuntza iriz-pideak finkatu eta, eta Udaleko sail desberdinak ere bateratzen. Udalaren barruan lan horrekin gabiltza. Horretatik harago, plan orokorrago horrek ahalbidetzen du udal aplikazio informatikoak edo beste mila aspektu arau-tzeko eta sustatzeko garaian.

"HERRITARRAK ANIMATU NAHI DITUGU, EGUNEROKO JARDUNEAN EUSKARA BULTZATZERA"

"Oinarritzkoa iruditzen zaigu langileen euskara maila behar bestekoa izatea"

Egunerokotasunean Udalak nolako konpromiso maila du euskararekin eta normalizazioarekin?

Egunerokotasunean, sail desberdinetatik eta martxan jartzen diren proiektuetan dago giltza. Azken urteetan aniztasunaren inguruan egiten ari diren lanketa horietan guztietan, hizkuntzari erreparatu jarri dira pare bat programa martxan. Hori ere balioan jarri behar da. Batetik, lehen hizkuntza euskara ez duten haur eta gaztetxoek zuzenduta, eus-kara erreformaren programa bat jarri da martxan. Ikas-turte pare bat daramatzate herriko haur eta gaztetxo batzuk euskara erabiltzerakoan eroso sentitu daitezen,

errefortzuko saio batzuk jasotzen.

Bestetik, etorri berriei begira, martxan jarri ziren doako ikastaroak oinarri-oi-narrizko hizkuntza, euska-ra gaitasuna eskuratu deza-ten. Hiru bat ikasturte ba-dabiltza, etorri berri hauek saio hauetan ikasten. Jakin badakit batzuk dagoeneko euskaltegirako saltoa ere egin dutela. Beraz, azkene-ko urteotan halako progra-mak jarri dira martxan.

Zaintzaren esparruan edo ostalaritzan behar handia dagoela identifikatzen da, eta uste duthalako ekimenek laguntza dutela herrikide berriak gure hizkuntzara ere hurbildu daitezen. Esango nuke hori, seguraski aurre-

ra begira ere, kontuan edu-ki behar dugula gure egoe-ra soziodemografikoa. Herri-ko argazki soziodemogra-fikoa nola aldatzen ari zaigun eta nola geroz eta jatorri atzeritarreko herri-kide gehiago daukagun gure artean. Uste dut hor bada-goela gai potolo bat lantze-ko. Euskaraz bizi garen herri bat izanik, nolabait herrikide berri hauek ere albo batera ez uztea garrantzitsua da. Gainera, Udalean gustatuko litzaiguke gogoe-ta hau ere herritarrekin ba-tera modu kolektiboan egin ahal izatea. Udazkenari begira edo, lantzeko modu-ko gaia izan daiteke. Euska-ra lehenetsi nahi duen uda-lerria izanik, zein erronka

daukagun identifikatu eta horiei nola heldu nahi die-gun erabaki behar dugu.

Euskaingintzaren esparruan, azkenaldian maiz aipatzen da 'oldarraldi judiziala'. Usurbilen ere izango du eraginik, ezta?

Udalak helegitea jaso du Udaltzaingo lanpostuetara-ko hizkuntza eskakizunaren harira. Guk argi daukagu. Udalerri euskaldunagarenez, herritarrekiko arreta behar bezala eman ahal izateko oinarritzkoa iruditzen zaigu langileen euskara maila behar bestekoa izatea. Halako he-legiteei aurre egiteko tresna juridiko indartsuagoen beha-rra sentitzen dugu. Erakun-deok tinko mantendu behar dugu eta herritarrei dei egin nahi diegu hizkuntza-esku-bideen urraketen kasuetan, salatzeke.



Antxon Mangas Trigo eta Cati Martin Rodriguez Usurbilgo Euskaraldiaren Hamaikako kideak dira.

"Euskara geroz eta gehiagotan erabili nahi dut"

Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabili nahi dute baina horretarako gainerakoak bidelagun behar gaituzte, lerrootako bi protagonistek, Catik eta Antxonek bezalaxe. Euskara ikasten ari direnekiko hizkuntza ohiturak zaintzearen garrantzia nabarmendu digute lerrootan.

Norbere hizkuntza ohiturek besteengan duten garrantziaz ohartarazi digute behin eta berriz lerrootako bi protagonistek, laugarren Euskaraldia abiatzeko bi aste baino geratzen ez diren honetan. Maiatzaren 15ean ekingo zaio hamaika egunez iraungo duen ariketa kolektiboari. Usurbilek dinamika honen laugarren edizioan parte hartzea sustatzeko osatu duen Hamaiakakoan dira ondoko irudiko Cati Martin Rodriguez eta Antxon Mangas Trigo. Catik aipatu digunez, Ahobizi gisa parte hartuko du Euskaraldian. "Euskaraz gehiago hitz egiten badut, erraztasuna izango dut. Horixe nahi dut, euskara geroz eta gehiago erabiltzea".

Duela hiru urte heldu zen Usurbila bizitzera. Lehenago, Donostian zela Belarriprest gisa bat egin zuen aurreko edizioarekin. "Erraza egin zitzaidan. Asko eskertu nuen guraso batzuk nigana etorritakoan euskaraz hitz egitea", nabarmendu digu. Hala nahi zuen berak, garrantzitsuena horixe iruditzen baitzaio. "Nik agian alda dezaket hizkuntza,

ados, baina haiek ez", erregutu du.

Berriro euskara ikasten

Desio bera du baita Antxonek ere. Estreinakoz parte hartuko du datorren Euskaraldian, Belarriprest moduan, bigarren aldiz bat egingo duen emaztearekin batera. Atsekabetzen du, nola berarekin hitz egiterakoan "hizkuntza aldatzen

duten niregatik. Horrek pena handia ematen dit". Halakoe-tan, "beti esaten diet, euskaraz segitzeko. Horregatik nire maila hobetu nahi dut".

Egun, Usurbilgo Udalak Artzabalen jubilatuentzat antolatua duen euskara ikastaroan parte hartzen ari da bigarren urtez, beste zazpi bat kiderekin batera. "Berriro hasi naiz euskara ikasten", adierazi dio NOAUA!ri. Izan ere, gogorazi digunez, "ez dakit zenbat aldiz hasi eta utzi" behar izan duen bere ogibideagatik. Makina-herraminta sektorean egin du lan urte luzez eta sarritan, munduan barrena bidaiatzea egokitu zaio. "Lanarengatik euskara ikasteari utzi eta ingelesa edo frantsesa ikasi behar izan nuen", gogorazi digu. Halere, euskararekin haurtzarotik hasi zen harremantzen, Usurbila heldu baino askoz lehenagotik.

"Ulertzea", erronka

Izan ere, lerrootako bi protagonistak garai desberdinetan heldu ziren udalerrri honetara. Bartzelonako herri batekoa da Cati. Kataluniako hiriburuan hasi zen guztiz arrotza zitzaien euskara ikasten 32 urterekin, bertako hizkuntza eskolan. Euskal Herrira iritsi zen gero. Sei urtez Oreretan bizi izan zen. Gogoan duenez, Usurbilgo "Joxe Jabier Furundarena-rekin ateratu nuen B1". Handik Donostiara lekuz aldatu zen eta segi zuen euskara ikasten. Bertan eskuratu zuen B2. Bederatzi urteren ondoren, duela hiru urte iritsi zen Usurbila.

Euskararekiko hartueman honi nolatan ekin zion galde-tuta, erantzun digunez, "bikotekidearentzat oso garrantzitsua zela" ikusi zuen. Izan ere, "bera euskalduna da". Katalunian jaio eta hango hizkuntza errealitatean hazita, "ulertzen dut kanpotik bazatoz, normala izatea bertako hizkuntza ikastea". Zaila izan zaio ikasketa prozesua, "baina polita da". Berezikiki gustagarria izan zaio, "hitzen jatorria, zer-

**"BETI ESATEN DIET,
EUSKARAZ
SEGITZEKO.
HORREGATIK
HOBETU NAHI DUT
NIRE MAILA"**

**"LANARENGATIK
EUSKARA
IKASTEARI UTZI
ETA INGELESA EDO
FRANTSESA IKASI
BEHAR IZAN NUEN"**

gatia" ezagutzea. Hartara, errazagoa iruditzen zaio hizkuntza bat ikastea, hizkuntza hori toki eta jendarte batean koka daitekeenean hain zuzen.

Bere ikasketa prozesuak erronka argi bat zuen; "uler-tzea". Izan ere, elkarrizketan zehar Antxonek bezala Catik behin baino gehiagotan aipatu digun moduan, "bikoteki-dearen koadrilakoekin beti aldatzen zuten hizkuntza, erdarara nigatik. Gogorra zen. Lagunarteko bazkari edo afa-rietan haiek beti euskaraz egiten zuten haien artean". Testuinguru horretan, "nik ez nuen haiek hizkuntza niregatik aldatzerik nahi". Azaldu digunez, "ni oso berritsua naiz eta gainerakoak hizkuntza aldatzera ez behartzeko gogorra zen isilik egon beharra".

"Askoz gehiago erabiltzen dut"

Usurbilen bizi denetik aldaketa nabaritu du. Batetik, heldu berritan, "alaba herri hizkerara oso erraz egokitu zen". Lagungarria zaio etxeko, familia barruko komunikazioa. "Etxean senarrak seme-alabekin beti euskaraz hitz egiten du, haien artean beti euskaraz hitz egiten dute. Haien elkarrizketak entzuten ditut egunero etxean. Horregatik, hiztegi nahiko ona dut", adierazi digu. Katalunian jaio eta lagunartean katalanez jardun arren, arbaso erdaldunak ditu Catik, bere ama-hizkuntza izatez erdara da eta hizkuntza horretan mintzatzen da baita seme-alabekin. "Nire hizkuntza emozionala da", adierazi digu. Etxetik kanpo, halere, "egun bileretan, adibidez, ez dut gaztelaraz egitea eskatzen. Euskaraz adierazten dutena hizkuntza horretan entzuten dut. Ulertu ez dudana galde-tzen dut eta kito". Usurbilen, Donostian bizi zen garaian baino "askoz gehiago erabiltzen dut" euskara. Bere esanetan, "ez dut hainbestetan hizkuntza aldatzen". Bide honetan, "geroz eta erraztasun handia-



Cati AhoBizi izango da datorren Euskaraldian; Antxon, Belarriprest.

goa dut euskaraz aritzeko, egunaren arabera". Patsadaz hartu behar duela dio. Izan ere, "berez oso azkar hitz egiten dut. Euskaraz ere abiaduraren berean aritu nahi izaten dut baina ezin da".

"Ez zen erraza"

Extremaduran jaio eta urte gutxiarekin haurra zela heldu zen Azkoitiara Antxon. Garai-ko testuingurua nolakoa zen jakinda, euskara "eskolan ez zen ikasten" noski, etxean ezin ezta. Gerora, bertan sortu berria zen AEK-rekin izan zuen lehen hartueman. Duela 39 urte joan zen bizitzera Lasartera eta duela 28 urtetik familiarekin Kalezarren bizi da. Azkoitian egin bezala, 2004an gogorarazi digunez, berriz hasi zen Etumeta AEK-n euskara ikasten bi urtez. "Urte oso gogorak izan ziren. Ikasten hasi eta eten egin behar izaten

nuen kanpora bidaiatzera joan behar nuelako. Ez zen erraza". Atzerrira joandakoan, handik "ordenagailuz ariketak egiten" oroitzen du bere burua.

Berarentzat euskaraz hitz egitea zaila izan arren, saia-kera horretan segi izan du, "horregatik nago hemen. Horregatik bat egin dut Euskaraldiarekin". Munduan barre-na, bere ogibideagatik ikastaroak beste hizkuntza batzuetan eskaintzen urte luzez aritu ostean, argi dio, berarentzat "orain, euskararen garaia da berriro". Baina adi egotekoa baita, Antxonon esanetan. Gogoan du, Usurbila etorritakoan bezala, orain ere euskararen arnasgunea da herri hau. Egun, ordea, "euskaraz ondo jakin arren, hainbatek ez dakit zergatik aldatzen duten hizkuntza".

Nork bere ibilbidea egin arren, Euskaraldiak batu ditu

"EUSKARAZ ONDO JAKIN ARREN, HAINBATEK EZ DAKIT ZERGATIK ALDATZEN DUTEN HIZKUNTZA"

"EZ ALDATU HIZKUNTZA, NABARI DA ULERTZEN DUDALA. JARRAITU EUSKARAZ"

Cati eta Antxon, Usurbilgo Hamaikakoan hain zuzen. Biek ala biek, ordea, eskaera bera egin dute, euskaraz ahaldu-tzeko egiten ari diren bidean; hizkuntza-ohiturak aldatzea ez dela erraza dakiten arren, besteok hizkuntza berean ari-tzea haiengana zuzentzerakoan. Catik berriki bilera bat izan zuen telematikoki. "Azaldu nahi nuena euskaraz adieraztea oso zaila zen eta gaztelaraz esan nuen. Bapatean, gainerakoek hizkuntza aldatu zuten. Bitan eskatu behar izan nuen euskaraz egitea. Oso gaizki sentitzen naiz". Horregatik dio, halako egoeren aurrean, "pena ematen dit. Ez aldatu hizkuntza, ulertzen dut, nabari da ulertzen dudala. Jarraitu euskaraz". Horretan saiatu behar dugula dio Catik.

"Nirekin segi euskaraz!"

Ildo beretik mintzatu da baita Antxon. "Badira beti euskaraz hitz egiten didatenak", adierazi digu Antxonek. Horixe da gainerakoek ere egitea nahi duena; "nirekin segi euskaraz!". Hortxe Euskaraldiaren atarian, Usurbilgo Hamaikako bi kideok eginiko eskakizuna, hizkuntza ohiturak zaintzeko ardura guztiona dela agerian jarri duten bi lekukotza.



EMAN IZENA!



www.euskaraldia.eus